



Lan Zuzenbideko Hiztegia: Adostasun terminologiko zabala lortzeko ahalegina

(Labour Law Dictionary)

ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier¹

Euskara Teknikoko irakasle titularra.

Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarriena auzoa, z/g

48940 Leioa

fvpallaj@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 4; 45-48]

Zuzenbide-arloko euskal hiztegi orokorra finkatuz doan garai honetan, badirudi Zuzenbidearen adarretako hiztegiak lantzeko garaia heldu dela. Hain zuzen ere, honako liburuxka hau, irakurle, espezialitateko hiztegien ildoan kokatzen da: Lan Zuzenbideko hiztegi elebiduna duzu (gaztelania-euskara/euskara-gaztelania), mila eta ehun (1.100) terminotik gora biltzen dituena.

Irakaskuntza eta administrazioko premiei erantzuteko gogoak bultzatu gaitu honelako hiztegi bat egitera. Izan ere, alde batetik, Lan Zuzenbidea unibertsitate-mailako titulazio batzuetako irakasgaia da; beste aldetik, zuzenean edo zeharka, maiz islatzen da arlo horretako hiztegi tekniko administrazioko idazkietan: bereziki lan-munduko legerian, baina baita hitzarmen kolektiboetako hizkeran ere. Beraz, egon badago euskaraz adierazi beharreko jakintza edo esparru berria; egon badago behar

horri erantzunez sorturiko testugintza laburra ere; eta zoritxarrez, Zuzenbideko terminologiaren beste eremu batzuetan jazo den legez, idatzizko ekoizpen labur horretan ere badago, egon, anabasa terminologiko franko.

Hain zuzen ere, lexikoaren aldetiko sakabanatzeari aurre egitea da gure helburu nagusia: hiztegi honen bidez, proposamen koherente eta landua eskaini nahi diegu Lan Zuzenbidearen esparruko euskal hitzun eta erabiltzaile guztiei. Talde baten proposamen soila izanik ere, ez dago esan beharrik batasun-asmoak eta gogoak gidatu dutela gure lana. Izan ere, aldean artean adostasuna bilatu izana eta bat-etortzea lortu izana da *Lan Zuzenbideko Hiztegiaren* ezaugarri aberasgarrietako bat: lehenik, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) arteko elkarlanaren emaitza delako; bigarrenik, hiztegiaren zati handi bat, UZEIrekin,

1. Honako hauek dira egileak: Xabier Alberdi Larizgoitia (Euskal Filologiako doktorea eta EHUko irakasle titularra); Xabier Altzibar Aretxabaleta (Euskal Filologiako doktorea eta EHUko irakasle titularra); HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala; Julio García García de los Salmones (EHUko Euskal Filologia Saileko irakasle titular behin-behinekoa); Koldo Gorostiaga Atxalandabaso (Zuzenbideko doktorea eta EHUko Lan Zuzenbideko irakasle ohia); Mikel Urrutikoetxea Barrutia (EHUko Enpresa Zuzenbide Saileko irakasle titularra eta Lan Zuzenbideko irakaslea).

Lan Harremanen Kontseiluarekin eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin lorturiko adostasunaren ondorioa delako. Gauzak horrela, adostasun handia bildu duen proposamen baten aurrean gaude.

Hiztegi honen sorrera EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan eta Zuzenbide Fakultatean kokatu behar da. Bateko eta besteko irakasle eta ikertzaileek osaturiko lan-talde batek *Lan Zuzenbideko Hiztegia* prestatzeari ekin zion EHUk babesturiko ikerketa baten bidez². Gerora, lan-talde hark HAEERekiko elkarlana bilatu zuen —erakunde hau beste eremu eta arlo batzuetako adituekin hainbat lanetan bateratzeko ahaleginetan diharduen herri-erakunde izaki-zabalkunde handiagoko emaitza kaleratu ahal izateko eta normalizazio-bidean benetako lan eragilea lortzeko: hala sortu zen hiztegi honetan jardun duen lan-taldea, HAEEReko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko teknikariek eta EHUko ikerketa bateko ikertzaileek osatua. Alde horretatik, azpimarratzeko da terminologiazko lan hau filologoen eta arloko adituen arteko etengabeko elkarlanaren ondorioa dela.

Metodologiari dagokionez, 700 termino inguruko gaztelaniazko zerrenda bat izan zen abiaburua. Zerrenda hori, gaztelaniazko hiztegi juridikoak eta Lan Zuzenbideko testu-liburuak arretaz aztertu ondoren aukeratu zuten gure lan-taldeko legelariak. Gero, lan-munduko euskarazko testu itzulien eta hiztegi juridiko-administratiboen hustuketa etorri zen: corpus horiek biluztu eta gero, terminologia-aniztasuna ispilatzen duen datu-basea lortu genuen. Ondoren, proposamen-erabakiak hartzeko tenorea iritsi zen: gure datutegian oinarrituz, erabakiak hartuz joan ginen HAEEReko eta EHUko kideek osaturiko lan-taldean. Behin lana bukatuta, hiztegiaren hainbat kopia zabaldu genituen euskaltzain, lege-aditu eta administrazio guztietako itzultzaile askoren artean, bai eta Hegoaldeko unibertsitateetako aditu batzuen artean ere (Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Deustuko Unibertsitatean): iritzi-emaile guztien ohar eta zuzenketak aztertu ondoren, *geure* behin betiko erabakiak hartu genituen.

Hiztegia amaitu eta argitalpenaren pentsatzen ari ginela, ezusteko ederra hartu genuen: UZEIk erdi bukatua zuen gurearen antzeko samarra zen beste hiztegi bat, *Lan Harremanak: Hiztegia* izenekoa. Bigarren hiztegi hori lan-mundukoa zen, Lan Harremanen Kontseiluaren eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eskariz egina. Hiztegi bien artean, hala ere, beti ez zegoen erabateko adostasunik euskal ordainetan. Bitasun tamalgarri hori gainditzeko, bilera batzuk antolatu ziren aipaturiko

erakundeetako ordezkarien artean. Hain zuzen ere, oraingo argitalpen honek asko zor die elkarrizketa haiei: hiztegi bietan agertzen ziren sarreraren ordain guztiak aipaturiko elkarrizketetan alde guztien artean hitzarturikoak dira.

Behin lan horiek guztiak bukatuta, Ibon Sarasola euskaltzaina arduratu da —EHUko Euskara Institutuaren izenean— hiztegiari azken orraztaldia emateko.

Beraz, esan bezala, ahalik eta adostasun zabalena bilatzea izan da hiztegi honen atzean dagoen lan-taldearen gurari sakonenetako bat. Alde horretatik, lan hau kanpoko beste hiztegi batzuek baldintzatuta dator: alde batetik, aipatu berri dugun *Lan Harremanak: Hiztegia* izan dugu gogoan; beste aldetik, beti izan dugu ikusmiran HAEER sustatzen ari den eta nahikoa aurreratua dagoen *Administrazio Hiztegia*. Askotan gertatu zaigu amore eman beharra: alegia, batasunaren edota adostasunaren izenean, behin baino gehiagotan utzi behar izan ditugu bazterrean guk gogokoago genituen proposamenak.

Bestalde, nolabait esatearren arlo “teknikokoak” diren hiztegi aipatuez gainera, beste bi erreferentzia ere izan ditugu gidari: lehenik, Euskaltzaindia burutzen ari den *Hiztegi Batua* aipatu behar dugu; bigarrenik, literatura-tradizioa biltzen duen *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bi hiztegi horiek ezinbesteko abiapuntu dira lexikografiatzko edo terminologiazko edozein lanetarako, eta gu albait ondoen saiatu gara biei zor zaien begirune eta leialtasuna gordetzen: esate baterako, *Hiztegi Batua* eskutan harturik, ezin alboratu izan dugu *enpresaburu* bezalako hitz bat, tradizio laburrekoa izanik ere; eta alderantziz, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* argitan, hiztegi juridiko-administratiboetan aski barreiatu diren *eskuduntza*, *bitartekari* edo *bitartekaritza* bezalako hitzak bazter uztea erabaki dugu.

Hizkuntza-irizpideekin jarraituz, aitortu beharra daukagu aspaldi honetako hiztegi juridiko-administratiboetako “tradizio” laburrari eusten saiatu garela. Hala eta guztiz ere, maiz hutsetik abiatu behar izan dugu: horrela, ez dago esan beharrik zenbaitetan izendapen berriak asmatu beharrean aurkitu garela (*baja: ezgai-egoera* modukoetan, esate baterako). Besterik ezean baizik ez dugu jo asmaketa berrietara. Denborak neurtuko du gure proposamen berrien arrakasta.

Bestalde, zenbaitetan berariaz aldendu gara ohizko proposamenetatik; batez ere, hizkuntzaren batasuna edo izaera nazionala alboratzen zuten proposamenen kasuan: bereziki, oso kontuan izan dugu Iparralde eta Hegoaldearen arteko muga dialektala gehiago ez

2. EHUko “UPV 033.356-HA 116/95” ikerketaren bidez, hain zuzen ere.

areagotzeko gomendioa. Horrela, zenbaitetan, gaztelaniazkoak soilik diren ordainak “Heg.” ezaugarriarekin bereizi ditugu, eta ahal izan dugunean, bestelako ordainei –batzuetan hitz asmatu berriei– eman diegu lehentasuna. Adibidez,

alta de pleno derecho	eskubide osoko gai-egoera. eskubide osoko alta <i>Heg.</i>
alta por maternidad	amatasuneko gai-egoera amatasun-alta <i>Heg.</i>
baja médica	ezgai-egoera medikuaren baja <i>Heg.</i>
excedencia forzosa	nahitaezko lan-utzialdi nahitaezko eszedentzia <i>Heg.</i>
ministerio público ministerio fiscal	ministerio publiko fiskaltza <i>Heg.</i>
nómina recibo de salarios	soldataren ordainagiri nomina <i>Heg.</i>
plantilla	lanpostuen zerrenda (langileena) plantilla <i>Heg.</i>

Erdal izenondo erreferentzialen ordainak ematean, aukeran, hitz-elkarketari eman diogu lehentasuna. Hurrengo sarreretan, adibidez, ez ditugu jaso *temporal, territorial, personal, sanitario, sozial, mediku, industrial, profesional* izenondo mailegatuak eta bai hurrengoan tankerako hitz-elkarteak:

ámbito temporal	denbora-eremu
ámbito territorial	lurralde-eremu
ámbito personal	pertsona-eremu
asistencia sanitaria	osasun-laguntza
asistencia social	gizarte-laguntza
reconocimiento médico	osasun-azterketa
reconversión industrial	industria-birmoldaketa
categoría profesional	lanbide-kategoria

Hala ere, zenbaitetan, hitz-elkarketa eta mailegutza erabili beharrean aurkitu gara. Halaxe gertatu zaigu “social” izenondoarekin: gehienetan hitz-elkarteaz baliatu izan garen arren (*gizarte-laguntza, Gizarte Segurantzza, lan-(arloko) jurisdikzio, lan-(arloko) epaitegi...*), banaka batzuetan mailegua onartu beste erremediorik ez dugu izan. Hurrengoetan, adibidez:

concertación social	elkar-hartze sozial kontzertazio sozial
delito social	delitu sozial
orden público social	ordena publiko sozial

Esandakotik ez da ondorioztatu behar mailegutzari atea erabat itxi diogunik, ezta hurrik eman ere. Esate baterako, izenondoan eremuan bertan, zenbait esapidetan lasai asko onartu ditugu hurrengoan moduko maileguak: *politiko, kolektibo, autonomo, paritario, publiko, partzial, organiko, juridiko, ofizial, nazional...*

Hitz elkartuen idazkerari dagokionez, Euskaltzaindiak marratxo edo bereiz egiteko askatasuna eman duen kasuetan, marratxoaren aldeko hautua egin dugu, hala hobe delakoan.

Gure hiztegiaren beste ezaugarri bat aditz-izen sortzailea den *-t(z)e* atzizkiaren aldeko hautua da. Erdal sarreraren artean asko eta asko dira aditzetatik eratorritako izenak, eta –Mitxelenaren aholkuari jarraituz– horrelakoen ordainak emateko berariaz bultzatu dugu *-t(z)e* atzizki aditz-izen sortzailea: zenbaitetan aditz-izena besterik ez dugu eskaini. Horra zenbait adibide:

abandono del puesto de trabajo	lanpostua bertan behera uzte
acumulación de autos	auzibide-agiriak metatze
adaptación al puesto de trabajo	lanpostura egokitze lanpostura moldatze
adhesión a convenio colectivo	hitzarmen kolektiboari atxikitze
admisión al trabajo	lanean hartze
admisión del trabajador	langilea hartze langilea onartze
afiliación a un sindicato	sindikatu kide egite sindikatuan bazkidetze
apertura del centro de trabajo	lantokia irekitze
aplazamiento	geroratzte
aumento salarial incremento salarial subida salarial	soldata goratze soldata goititze

Beste batzuetan, eratorriarekin batera aditz-izena ere eskaini dugu, ekintza adierazi behar denerako. Hona hemen, zenbait adibide:

absorción y compensación de salarios	soldaten irenste eta konpentsatze soldaten irenspen eta konpentsazio
abuso de derecho	eskubideaz abusatze eskubide-abusu
adaptación de jornada de trabajo	lanaldiaren moldaketa lanaldia moldatze
afiliación a la Seguridad Social	Gizarte Segurantzako afiliazio Gizarte Segurantzaz afiliatze
amortización de puestos de trabajo	lanpostuen amortizazio lanpostuak amortizatze/kentze
ascenso	maila-igoera mailaz igotze
cambio de centro de trabajo	lantoki-aldaketa
traslado de centro de trabajo	lantokiz aldatze

Gure lanaren ezaugarri batzuk aipatu ondoren, gogora ditzagun hiztegi honen muga eta alderdi ahul batzuk. Hasteko, ez da frantsesa sartu gure hiztegiaren, nahiz eta ez dugun bistatik galdu frantsesezko ordaina gure hautua batasun-hauslea gerta ez zedin: oso kontuan izan dugu gaztelaniaren eta frantsesaren arteko kidetasuna edo urruntasuna, bereziki mailegutzaren eremuan. Bigarrenez, begien bistan dago hiztegi hau "izendegien" belaunaldikoa dela; alegia, ez dago hiztegiaren hain beharrezkoak diren testuinguru eta adibideez hornitua; zoritxarrez, muga hori etengabe errepikatzen da euskal terminologian eta oraindik denbora pixka bat igaro beharko da euskal terminologia benetako testuez elikatu ahal izateko. Hirugarrenez, termino soilak ageri ditu hiztegi honek, batere azalpenik edo definiziorik gabe; alde horretatik, arloko teknikari edo erabiltzaile jakitunarentzat pentsatuta dago batik bat.

Amaitzeko, esan dezagun zaila egiten dela askotan Zuzenbidearen adar bateko hiztegia finkatzea sistema osoaren ikuspegi oro-hartzailea izan gabe, eta are gehiago hiztegi juridiko orokorra guztiz finkatu gabe dagoenean: alegia, Lan Zuzenbidearen ikuspegitik zuzenak eta egokiak izan daitezkeen proposamen batzuk, beharbada, aldatu edo berrantolatu egin beharko lirakeke Zuzenbidearen beste adarretatik begiratu gero. Baina egokitze-, berrantolatze- eta sistematizatzeko lan hori egin ahal izateko, lehenik ikuspegi partzialaz eginiko espezialitate-hiztegiak beharko dira.

Izan ere, espezialitateko hiztegiaren honetan, juristen ikuspegitik, bi oztopo-motari aurre egin behar zaie: lehenengo eta behin, Lan Zuzenbidean, Zuzenbidearen beste adarretan ez bezala (Foru Zuzenbide eta Zuzenbide Fiskalaren kasuetan, adibidez), arauak emateko eskumena Estatuarena soil-soilik izanik, ez dugu berezko esparrurik euskara juridikoa geuzuz sortzeko. Horrela, gaur egungo Espainiako Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean dagoen eskumen-banaketa gaindiezinezko harresia dugu. Eskumenak estatuaren esku daude. Arauak gaztelaniaz, beraz. Egoera honek nabarmen uzten du, era berean, itzulpenaren morrontza eta garrantzia.

Bestalde, eta honekin juristak bat datoz, Zuzenbidearen adar nagusien artean mugak erabat kokatzea arazo konponketa izan da betidanik. Hein handi batean, hala ere, Zuzenbidearen adar guztiak altxor komunaren partaideak direnez gero, nolabaiteko oinarritzko batasuna dago. Alabaina, hainbat aldiz, adar bakoitzaren berezitasunak eragiten duen berezko moldaketari kasu egin behar zaio nahitaez. *Enpresaburu*, esate baterako, egoki da Merkataritza Zuzenbidean ekonomiaren ikuspegitik aztertu behar baldin bada nagusiki;

Lan Zuzenbidearen ikuspegitik, ostera, *enplegu-emaitzat* hartu beharko dugu, lan-kontratuaren alderdi bat baita (nahiz eta eguneroko erabileran gutxitan aipatua izan, gaztelaniaz *empleador* hitza bezala, funtsean; ez da hala gertatzen, ordea, frantsesezko *employer* hitzarekin).

Gure hiztegiarako, Lan Zuzenbidearen eremua finkatu dugu, irizpide malgu eta zabala baliatuz: alde batetik, Espainiako legeria sozialaren arabera –Gizarte Segurantzaren barne– eta, bestetik, euskaraz idatzirik hitzarmen kolektiboetako lexikoaren arabera. Horretaz gain, hedabideek –*Euskaldunon Egunkaria*, batez ere– ezagutza-iturri bi horiei buruz erabili duten hizkera ere kontuan hartu dugu.

Akatsak akats eta ahultasunak ahultasun, gure helburua betea ikusiko genuke, oraingo hiztegi edo izendegi xume hau lagungarri gertatuko balitz Zuzenbideko terminologia normalizatzeko eta finkatzeko bide luze eta malkarrean.